



URTERO hainbat gazte joaten da Euskal Herriatik atzerriko herrialdeetara laguntza ematera. BERRIA

# Elkartasuna, erreallitate desberdinak batzeko giltza

Egunotan Donostian emandako hitzaldiek gazteen konpromisoa eta testigantza dute ardatz

UNAI ZUBELDIA - DONOSTIA

Kolonbia, Ekuatore Ginea, Palestina, India, Sahara eta Euskal Herria. Giza eskubideak batu dituzte egunotan herrialde horiek guztiak Donostian. Gerra, triskantza, droga, arazoak, komunikabideak... gauza batek batzen ditu herrialde guztiak: elkartasunak eta jakin-minak.

Xirimiri Gazte Taldea Donostiako Udaleko Gazteria Sailarekin batera, Giza eskubideak bide hartuta, *Gabonak Zuretzat* egitasmoa garatzen ari da egunotan, Donostiako Alde Zaharrean. Beste hainbat elkarterekin elkar-

lanean, Alde Zaharreko Xirimiri Gazte Taldeak hainbat hitzaldi eta erakusketa antolatatu ditu, abenduaren 27an hasi eta gaur arte —gaur *Gazteok zubiak eraikituz: Euskal Herria orain eta hemen* mahai-ingurua egingo dute politikan eta bakegintzan konpromisoa duten gazteek—.

«Kolonbiara joan eta erreallitatea uste baino askoz ere gordinagoa da; oso desberdina da erreallitatea pantaila baten aurrean ikustea, edo bertara joan eta erreallitatearen zati sentitzea». Estitxu Madariagaren hitzak dira; 2001ean Kolonbiara joan zenetik Komite Internazionalis-

tan Kolonbiako gatazka baretzeko lanean ari da.

Esatetik izatera alde handia dago, eta jauzi hori eman nahian murgildu da bakoitza Kolonbia, Palestina, India eta Saharako erreallitatean. BERRIAK hitzordua egin du hitzaldiak eman dituzten artean lau herrialde horien alde lanean aritutako boluntarioekin.

Herrialde horietan gerra, lis-karra eta ezinikusia egunerokogia da; Olatz Madariagak —abuztuan Palestinara joandako boluntarioa— garbi du herrialde horietako egoera zaila zerk sortzen duen. «Ez dago be-

netan arazoa non dagoen eta zer den erakusteko borondaterik. Zergatiak ez dituzte islatzen, beti azalean geratzen dira».

## «Bertara joan eta eurekin egotea da gakoa»

Arazoa ikusi gabe horri aurre egitea ezinezkoa da; konpontzeko lehenik eta behin arazoaz jabetu behar da; Aiala Fernandezek ere Palestinako egoera bertatik aztertu du, eta garbi du konponbiderako bidea zerk ekarriko lukeen. «Palestinara bertara joan eta eurekin egotea da gakoa. Zer gertatzen ari den konta-

## OLATZ MADARIAGA

(Palestinara boluntario joana)

«Ez dago benetan arazoa zer den erakusteko borondaterik»

## ELBAR BUJARI

(Euskal Herria etorritako sahararra)

«Saharan giza eskubideak urratzen dira, baina arazoa ezkutatu egiten da»

tu, eta eurekin hitz eginda orain egiten dena baino askoz ere gauza gehiago egin ahal izango gedituzke».

Teoriak eta praktikak, oraingoan ere ez dute bat egiten, ordea. «Askoz errazagoa da arazoi aurre egitea bakoitzak urrutiko gatazka horiekin guztiakin zerikusirik ez duela pentsatuta. Jende askok ez du pentsatzen nola heldu diren egoera horretara; ez zaie komeni», gaineratu du Fernandezek.

Baina herritarrek ezagutzen al dute herrialde bakoitzeko erreallitatea? «Saharako arazoez asko dakite herritarrek, baita politikariek ere. Okupatutako Saharaz, ordea, ez da ezer kontatzen. Bertan giza eskubideak egunero urratzen dira, baina arazo hori ezkutatu egiten da», erantzun du Elbar Bojarik, ikasketek hala behartuta Euskal Herria etorritako sahararrak.

Bakoitzak arazo baten mina azaleratzen du hitz bakoitzean; Olatz Madariagak argitu duen moduan, baina, giza eskubideak aintzat hartuta, guztiak gauza batean, behintzat, ados daude. «Arazo guztiak elkarrekin lotuta daude, gure bizimoduaren ondorio dira herrialde horien arazoak eta ezinak. Garrantzitsua da jendea lotura horren jabe egitea».

Kolonbia, Palestina, India, Sahara... Gatazkek, gerrek, tiro hotsak lotu dituzte herrialde horiek guztiak; batu, elkartasunak batu

## Elkartasunaren mezulariak

### ELBAR BUJARI

Sahara Mendebaldea



Mendebaldeko Saharan jaio zen, baina ikasketak tarteko, Euskal Herria etorri zen.

1990etik Saharako Errepublikari Arabiar-Saharauko Lagunen Elkarteko kidea da.

### AIALA FERNANDEZ

Palestina



Komite Internazionalistarekin Palestinara joan zen 2004ko abuztuan. Bertako erreallitateaz jabetzeko «jakin-mina» zuelako joan zen Palestinara. Kazetaritza ikaslea da.

### OLATZ MADARIAGA

Palestina



Komite Internazionalistarekin Palestinara joan zen 2004ko abuztuan. Ez da bertako kidea, baina 1995ean Guatemalara joan ostean, abuztuan Palestinara joateari ez zion muzin egin.

### IÑIGO EGUREN

India



1996an emaztearekin Indiara joan zen; 1999an bueltan etorri eta han jasotakoa bueltatu nahian, Calcuta Ondoan GKEa sortu zuen emaztearekin. Gaur egun 30 badira GKEan.

### ESTITXU MADARIAGA

Kolonbia



Komite Internazionalistako kidea da, eta horren bidez joan zen 2001ean Kolonbiara.

Orduetik, beste talde batzuekin, Europan egiten den lana koordinatzen ari da.